

# Erljioa Gipuzkoako Foruetan (III)

*La versión escrita de los Fueros vascos nació en la Edad Media y alcanzó su madurez más completa en la Moderna. Tanto en un caso como en otro, la preocupación religiosa estuvo presente y las Juntas Generales legislaron sobre aspectos parciales de la vida religiosa del País. En esta pequeña entrega sobre el caso guipuzcoano, atenderemos a la legislación sobre Ordenes Religiosas, muy similar a la que ya constatamos en Bizkaia.*

Ermita, eliza eta parrokiak lehendik zetozen arren, Ordena Erljiosoen Gipuzkoako presentzia batez ere XVI. mendetik honakoa da, eta berauen Erakunde-moduak legezko trataera egokitua eskatu zuen, Komentuen bizitza segurtatu eta benetan gizartearen onerako izan zitezten, kontu eginik, gainera, lehendik bestelako eliz egiturak ere landatuta zeudela Lurralde berean (parrokiak, ermitak, etab.).

### Gipuzkoako komentuak

Ordena Erljiosoen nortasun juridikoa Elizako Zuzenbide orokorrak definituta zeukan mende batzuk lehenagotik (IV-XII. mend.), eta Eskekoak sortzean (XIII. mend.), Elizak egoera berrira egokitu zituen arauak, fraide berrien zereginetarako lege-erraztasunak emanda. Funtsean, ez zen asmatu behar Ordenak nolakoak izan behar zuten, hemen, Euskal Herrian, bertako baldintza eta premietara nola moldatuko ziren baizik.

Gipuzkoako hainbat Udal Kontzejuk bere eskumena zuen herriko Parrokiaren gain, Bikario-gaia aurkezteko eta eliz ondasunak gobernatzeko; hau da, aginte laikoa Elizan bertan ere bazegoen. Horren parean, elizgizonek talde-nortasun juridikoa zuten, Bilera eta Kongregazio deituak egiten zituztela, elkarrekin arazoak aztertu, erabakiak hartu eta gotzainari proposamenak aurkeztu edo Herri-Erakundeei iradokizunak egiteko.

Esan dezakegu, Erdi Aroko Ordenarik ez zela landatu Gipuzkoan, eta Eskeko Ordenentzat beranduko lurraldea izan zela herrialde hau, ia osorik XVI.ekoa. Hortaz, Foruen garapen modernoan jarri behar da Gipuzkoako Herri-Erakundeen eta Ordena Erljiosoen harremanen historia, zehazkiago 1493tik aurrera.

Aldizkariko berriemate hauetan ikusita daukagunaren arabera, gizonetzkoak bezala emakumezkoak ere beren lekua izan zuten Gipuzkoan, Monasterio eta Komentuetan, baina agintari zibilekiko harreman politiko-erlijiosoan mojekiko ezer gutxi ageri da Foruetan. Ez da ahaztu behar emakumezkoen Ordenen hemengo abiapuntua sarrienik aurreko serorategietan egon zela, eta hauek bai, moja itxiek baino arreta ofizial handiago irabazi zutela gure Herri-Erakundean.

### Serora eta serorategiak

Gure arteko biziera erlijiosoa, bereziki antolatua –bakarkakoa nahiz taldekakoa– gizarte kristauak bere kabuz sortu eta eraturakoa izan zen: Ordena Erljioso handien beharrik ez zen egon otoiñera Ermitaren batera bildu edo zenbait emakumezko herriko etxeren batean elkartu, zerbitzu batzuek eskaini eta fedezko biziera elkarren artean antolatzeko. Hain zuzen, geroko moja-monasterio batzuen jatorria horixe izan zen (Azpeitia, Oñati edo Bergara).



Foruen bildumetan gogoan hartzen ziren serorek zituzten egitekoak: goiz-iluntzetako kanpaiak jo, dotrina irakatsi, zahar eta gaixoak zaindu, baserrietako eskolarik gabeko nexkamutikoak eskolatu edo esku-lanetan trebatu, eliza eta ermitak garbitu eta txukundu, hilzorian zeudenei lagundu; oro har, gutxieneko zerbitzu sozialak segurtatu. Zerbitzu sozial ona eta merkea zen serorena: "de suerte que en opinión de muchos eran útiles y lo más que gravaban era un celemin de trigo y otro de maíz a cada casería cada año".

Serorategi haiek beren arauekin bizi ziren eta denbora pasatu ahala Elizak ezagututako Erregelak hartu zituzten. Askotan bizitza luzea izan zuten serorategiek, moja-janzkera berezia hartzeraino. Ohitura honen kontra agertu ziren, ordea, Gipuzkoako Batzarrak (1767). Gizonezko nahiz emakumezkoen kasua izan, herrietako ermiten zerrenda egiteko eskatu zuten Batzarrak, eta haietako batzuek itxi ere egin zituzten, arrazoi ezberdinengatik (1769),

### **Eskeko Ordenak**

Eliz Zuzenbidearen arabera, Ordena jakin batzuk jatorriz ziren eskekoak, beren ekonomia limosna-eskearen bidez osatzen zutenak (karmeldarrak, frantziskotarrak, domingotarrak, agustindarrak). Halako komentuek ugaritu ahala, astunago bihurtu zen gizartearen gain zetorren zama.

Batzuetan, gainera, eskeari bere indarra gehitzeko itzal hobeko ongileen laguntza izaten zuten fraide eskaleek (1701). Horregatik dio Foru arau batek komenigarria litzatekeela

"[que] no se valiesen los postuladores de padriños sobresalientes, porque su autoridad, amistad o respeto no obligase a los moradores a dar de limosna lo que pudiese hacerles falta para su sustento y estado decente" (Aranburu, 371).

Limosna-eskearen kontuan, arazoetako bat izan zen erbestetik, eta Probintzian bertan Etxerik izan gabe, Gipuzkoara zetozen fraideena; Gotzainarekin hitz eginda, saiatu zen Probintzia eskeko hainbeste fraide kanpotarren hau mugatzen, "procurándose la manutención y subsistencia de los propios Conventos y Santuarios".

Azpimarratzekoa da, ordea, Probintziak berak sortu zituen salbuespenak, hain zuzen gipuzkoarrekin atzerrietan jasan zitzaizkien ezbehar eta ezustekoetan irtenbide lagungarriak sortzeko. Jakina da Gaztela eta Aragoiko Erreinuek mundu zabalean zituztela interes eta lurra (gogora Mediterraneo), baina ez tartean suertatzen ziren borroka armatuak gabe. Itsasgizonak, berriz, asko eta asko euskal herritarrek ziren, eta herritarrik franko erori izan zen musulmanen eskuetan gatibu. Nork askatuko zituen egoera hartatik? Horretarako sortuta zeuden Ordena gatibuaskatzaileei eskatu zitzaizkien beren zereginetan h-mengo gatibuak gogoan hartu eta aska zitzaizkien hirukoiztar edo trinitarioei eta mesedekoei. Bi Hitzarmen sinatuak zituen Probintziak azken hauekin (1561, 1661, 1740), "acerca de la limosna que han de pedir en ella para redención de cautivos christianos, especialmente de guipuzcoanos y bascongados".

**Joseba Intxausti**